

Baiona - 2007ko maiatzaren 5ean
2007ko edizioa



hitz*a*ditza


Zuzen idaztea da giltza !

Jan Battitt Dirassar
«Hogei pintako katalintzarra»

Laguntzaileak



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE



«Hogei pintako katalintzarra»

Jan Battitt Dirassar

2

« Ixtorio mixterio, dakienak konda dio! » Hola mintzo ziren lehengo zaharrak... Hain xuxen huna ixtorioño bat hazpandar zapatain bati gertatua duela hiruetan hogei urte nonbait han. Gure gizonak arras maite zuen arnoa. Kasik soberaxko naski...

Keinka hartan, arnoa xuhur zen eta salgai zenak frangotan iduri minata. Lagun batek erran zion delako zapatainari: « Dantxariako benttetan, badie arnoa ausarki. Merke eta ona. Salbu hara, joan behar baita mugaraino eta guardak non dabiltzan ontsa kasu eginez ».



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE



«Hogei pintako katalintzarra»

Jan Battitt Dirassar

3

Larunbat goiz batez, katalintzar bat nonbaitik muntaturik - hogei pintakoa, itzulia bali egiteko gisan – Mattin zapataina arnoketa abiatu zen. Moisen denborako bizikleta baten puntan eta xoria bezein arin! Abiatuan abiatu, haratekoan bidea airoski egin zuen! Nihon mugazainik ikusi gabe. « Enetzat hobe, alfer tzar horiek daudela diren tokian »

Bainan gero, etxeratekoan, zer xintxinmariak! Mugatik zenbait urratsetan, errebidera ateratzeko juntan, bi guarda begiak luzatuz deneri so egoki. Urrunetik ikusi baitzituen, arnoketaria bazter batean egon zen guardak urrundu arte.



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE



«Hogei pintako katalintzarra»

Jan Battitt Dirassar

4

Gero berriz bideari lotu bainan halako beldur batek koropilatua halere...
Nonbaiteko hala beharra, Ainhoatik Ezpeletara jauste hortan, bide kurutze
batean, egundainokotan ba bi kaxketadun.

Mattinek bidexkaz bidexka bazterragotik segitu zuen. Izerdi ederra bildu ere
bizikleta pusa eta pusa. Sasipe batean aski toki harritsuan erori eta zango
aztalak larrutu! Noizbait heldu zen halere Kanboraino, beti xokoz xoko. Eta
Kanboko zubian, gaixo gizonaren nardagarri, horra hainbestenarekin beste
bi guarda! Jo gibelera, urruntxagotik berriz Hazparneko bidera nolazpait
ateratzeko.

«Hogei pintako katalintzarra»

Jan Battitt Dirassar

5

Mattinek halako atsegin bat hartu zuen azkenean Hazparneko lurretan sartu zelarik! Ez baitzen goizegi! Bat-batean halako hixtu bat bezala entzuten du eta bere bizikleta zaharra ezin gehiago xuxen atxik! Harri koxkor bat jorik, aintzineko gurpil-azala zuen lehertua. « Deabrua sar balakio! » ikaragarriko garrasi itsusia bota zuen. Berriz ere bizikletari pusaka, haratxagoko etxe batetaraino egin zuen bide, izerdi lapetan jarria! Bazutenetz pedaxu bat gurpil-azalarentzat... Eta bai, bazuten preseski! Eta gogotik lagundu zuten...

Eguerdi! Hainbeste itzuli-mitzuli eginik, horra zapataina kasik etxera heldua! Bideko pena guziak jadanik ahantziak!



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE



«Hogei pintako katalintzarra»

Jan Battitt Dirassar

6

Eta orduan gertatzen da gauza bat harrigarria, kasik ezin sinetsia! Bihurgune batean, horra bizikleta zeharka doala bide hegiko haska harritsu baten zolara. Zapataina erroz gora, laparpean oihenka, arrunt durduzatua, nehora ezin xuti, beso bat odoletan, katalintzarra bi puska egina, arnoa dena gur-gur-gur ixurtzen ari burrustan!

Nolazpait xutitu zenean, Mattin bulta bat nigarrez egon zen. Haur bat bezala nigarrez.

Ezin onetsiz errekontru hori! Ezin iretsiz funts hortan galdu zuela hogei pintako katalintzarra, Nafarroako arno gozoz betea zena!



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

